



Eguneraketa
2020/7/23

PREBENTZIO NEURRIAK MENDILLORI AUZORAKO (IRUÑA)

COVID-19aren

OSASUN-KRISIARI AURRE EGITEKO

Uztailaren 22ko 36/2020 FORU AGINDUAK, Osasuneko kontseilariak emanak, zenbait prebentzio neurri ezartzen ditu Mendillorri auzorako (Iruña) COVID-19aren egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz.

1. G- Mendillorri bizi diren pertsonen mugimenduetan bada eraginik?

E- Ez, horretan ez dago eraginik. Dena dela, bete egin behar dira maskara nahitaez erabiltzeko neurriak, baita gainerako osasun- eta gizarte-aholkuak ere, agerraldi epidemikoari eusteko, eta saihesteko kutsatze gehiago egon daitezen eta, ondorioz, Nafarroako herritarren osasun publikoa arriskuan jar dadin.

2. G- Zer ordu arte egonen dira irekita ostalaritzako establezimenduak, jatetxeak eta gaueko aisialdikoak?

E- Establezimendu horiek 00:00etan itxi beharko dira, eta ixteko ordu hori ezin da atzeratu.

3. G- Barran kontsumi dezakegu taberna, jatetxe edo horien gisakoetan?

E- Ez, ostalaritzako establezimenduetan, jatetxeetan eta gaueko aisialdikoetan, lokal barruko kontsumoa mahaietan eserita egiten da nahitaez, edo mahai multzoetan; betiere bermatuko da gordetzen dela bezeroen edo bezero-taldeen arteko segurtasun-tartea.

4. G- Zenbat pertsona elkartu gaitzke taberna, jatetxe edo horien gisako lokal bateko mahai batean?

E- Ostalaritzako establezimenduetan, jatetxeetan eta gaueko aisialdikoetan, **ez dira onartzen hamar pertsonatik gorako taldeak mahai batean** edo mahai multzo batean. Era berean, bermatu egin behar da gordetzen dela bezeroen edo bezero-taldeen arteko segurtasun-tartea.

5. G- Elkarte gastronomikoetan eta peñetan elkartu gaitzke?

E- Ez, debekatuta dago elkarte gastronomikoetan eta peñetan jarduerak egitea. Itxita egonen dira.

6. G- Aldatu da, sektore desberdinetan, batera egon daitekeen jende kopurua?

E- Bai, gehieneko kopuruak aldatu egin dira, eta hauexek dira orain:

Txikizkako merkataritza establezimenduak eta lokalak eta jarduera eta zerbitzu profesionalekoak, jendearentzat irekita daudenak.

- Ezin izanen da gainditu baimenduriko gehieneko **edukieraren ehuneko berrogeita hamar.**

Gurtza egiteko tokiak.

- Gurtza egiteko tokietan ezin izanen da gainditu baimenduriko gehieneko **edukieraren ehuneko berrogeita hamar.**

Ezkontza zeremoniak eta beste ospakizun sozial, erlijioso edo zibil batzuk.

- Gurtza egiteko tokietan egiten badira, ezin izanen da gainditu baimenduriko gehieneko **edukieraren ehuneko berrogeita hamar.**
- Ospakizun horiek egiten badira ostalaritza lokaletan, jatetxeetan eta elkarte gastronomikoetan, bete beharko da foru agindu honetan edukierari dagokionez zehazten dena.

Akademiak, autoeskolak eta irakaskuntza ez-arautuko zentro pribatuak, eta prestakuntza zentroak.

- Akademia, autoeskola eta irakaskuntza ez-arautuko zentro pribatuetan eta prestakuntza zentroetan gauzatzen den jarduera **aurrez aurre egiten ahalko da**, baldin eta baimenduriko **gehieneko edukieraren ehuneko berrogeita hamar** gainditzen ez bada.

Ostalaritzako establezimenduak, jatetxeak eta gaueko aisialdikoak.

- Ostalaritzako establezimenduetan eta jatetxeetan ezin izanen da gainditu **baimenduriko gehieneko edukieraren ehuneko berrogeita hamar** lokalaren barnean edo, bestela, **erabilera publikorako**

baimenduriko eremuetako 2,25 metro karratu erabiltzaile bakoitzeko.

- **Lokalaren barnean** bakarrik kontsumitzen ahalko da **mahai batean eserita**, edo mahai multzo batean. Dena den, **bermatu beharko da pertsonen arteko segurtasun-tartea gordetzen dela** mahaietan edo mahai multzoetan dauden bezeroen edo bezero taldeen artean, eta **ez da onartuko hamar pertsona baino gehiago egotea mahai berean** edo mahai multzo berean.
- Establezimendu horietan, **aire zabaleko terrazak ehuneko hirurogeita hamabostean** okupatzen ahalko dira, udal lizentzian baimendutako mahai kopurua oinarri hartuta.
- **00:00etan itxi beharko dira**, eta ixteko ordu hori ezin da atzeratu.

Liburutegiak

- Liburutegiek (titulartasun publikokoak zein pribatukoak izan) beren jarduerari lotutako zerbitzuak emanen dituzte, baina okupazioak ezin izanen du gainditu baimenduriko gehieneko **edukieraren ehuneko berrogeita hamar**. Halaber, muga hori aplikatuko da liburutegietan kultur jarduerak egiten direnean.
- Liburutegien barnean **haurrentzat** dauden **espazioetan**, ezin izanen da gainditu baimenduriko gehieneko **edukieraren ehuneko hogeita bost**.
- Establezimenduan jatetxe edo ostalaritzako zerbitzu motaren bat ematen bada, zerbitzuak bete beharko ditu foru agindu honetan establezimendu horietarako ezarritako baldintzak.

Kultur ekipamenduak.

- Kultura ekipamenduetara sartzan ahalko da jendea, baldin eta bisitarien kopuruak ez badu gainditzen baimenduriko gehieneko **edukieraren ehuneko berrogeita hamar**.

Hurtzaindegiak eta haur eskolak.

Gehieneko edukieraren **ehuneko berrogeita hamarrera** mugatuko da jarduera.

7. G- Joan gaitzke parkeetara edo aire zabalean dauden erabilera publikoko kirol eremuetara?

E- Ez, ezin dira erabili haurrentzako parkeak, ez eta erabilera publikoko antzeko eremuak ere.

8. G- Zein dira kirola egiteko baldintzak?

E- Honela jokatu da **kirol jarduera eta instalazioetan**:

1. **Aire zabaleko kirol jarduera federatugabea** banaka edo taldeka egiten ahalko da, ukipen fisikorik gabe eta gehienez 10 pertsona bilduta.
2. **Kirol instalazio eta zentroen** barneko jarduera gehienez 10 pertsonako taldeetan egiten ahalko da, kontaktu fisikorik gabe, baldin eta ez bada gainditzen baimenduriko gehieneko edukieraren ehuneko berrogeita hamar.
3. **Jatetxe edo ostalaritzako zerbitzu** motaren bat ematen bada, zerbitzuak establezimendu horietarako ezarritako baldintzak beteko ditu.

9. G- Haur eta gazteentzako aisialdiko jardueretan zer neurri bete behar dira?

E- **Edukieraren ehuneko berrogeita hamarrera** mugatuko da jarduera, eta, betiere, **gehienez hamabost pertsona** bilduta **talde bakoitzean**, udal agintari eskudunak xedatzen duena ukatu gabe, xedapenen bat ematen badu.